

ZURBANO, M. (1998): *Munduko ekonomia: botereak, disparekotasunak eta egonkortasun-eza kapitalismo globalean*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.

EKONOMI GLOBALIZAZIOAZ

Munduko ekonomiaren aspektu nagusiez egindako ibilbidean nazioarteko ekonomia gero eta garrantzitsuagoa dela ezezik egungo ekonomi aldagai funtsezkoenen joera esparru horretan finkatzen direla erreparatu ahal izan dugu. Hasierako gaian aurkeztutako mundu sistemaren erakuntza prozesuak aurrera egiten jarraitzen du, ekonomi aldagaien eta fluxuen nazioarteratze prozesuak bultzaturik kapitalismoaren hedakuntzaren kontestuan. Azken bi hamarkadetan abian zegoen joera historikoa bizkortu eta tinkotu egin da. Hain da trinkoa egunotan ekonomiak duen naziozgaindiko dinamika ezen egile eta ekonomilari anitzek mundu ekonomia bakarraz mintzo dira ekonomi globalizazioaren une historikoan gaudela esateraino. Uste hori elikatzen du mundu merkatu bakarra osatu bide duen prozesuak, horren giltzarriak izanik finantza merkatuetako globalizazioa eta GATT zein MMEak salkarien merkatuetan ereindako liberalizazioa. Ekonomi globalizazioaren errealitatea egiaztatzeko Estatuak nazio ekonomietan duten kontrola eta administratzeko ahalmenaren galera ere erabiltzen da.

Halere, ekonomi globalizazioa egungo errealitate ekonomikoarekin ez dator bat. Arloz arloko ibilbidea egitekotan, lan merkatua guztiz zatikatua dagoela gogora ekarri behar da eta horren erakusle nazioarteko migrazioek nazioko hesiak gainditzeko dituzten zailtasunak dira.

Finantza merkatuak behatzen baditugu hemen globalizazioa oso aurreratuta dagoena bistakoa da. Kapital merkatuetako kanbio kontrolen galerak eta, oro har, merkatu hauetako desarauketa dinamikak 5. gaian aztertu dugun nazioarteko kapital mugimenduen aparteko gorakada ekarri dute. Azpimarratzeko da, halere, fluxu hauen gehiengoa zorroko inbertsioak direla, batez ere epe laburrean eginikoak. Horrela nazioarteko finantza merkatuen egonkortasun eza eta ziurgabetasunerako oinarriak ezarri dira, azkenaldion hainbat ustekabe ekarritakoak: Hirugarren Munduko kanpo zorraren arazoa 1982an, Europako Moneta Sistemaren krisia 1992an, Mexikoko tekila eragina 1994ean eta 1997ko Asia eta 1998ko Errusia eta Hego Amerikako finantza krisiak. Aitzitik, egonkortasun handiagoa

bermatu ohi duen inbertsio zuzenak hazkunde apalagoa ezagutu du eta, batez ere, Iparraldeko herrietan kontzentratu da, Hegoko herri bakan batzutan inportantea bada ere.

Salkarien merkatuetako munduraketa prozesuak aurrera darrai. Dena den, nazioarteko merkataritzaren hazkuntza tasak 1970eko hamarkadaren erditik geldotu direla aztertu dugu laugarren gaian. Honen ordaina zera da, nazio merkatuen garrantzia, batez ere mendebaleko herrietan, berebiziko izaten jarraitzen duela.

Haratago, naziozgaindiko ondasunen harrera eta bidalketa fluxuak esanguratsuak dira mendebaleko herrietan eta Hegoko gutxi batzuetan (industrializazio berriko herrialdeak). Hegoko gehiengoa, oster, fluxu hauetatik at gelditzen ari dira eta alboratze prozesu bizian daude (Afrika, Asiako hegoa,...).

Baina, salkarien nazioarteko merkataritzaren egoera adierazten duen terminoa eskualdekatzea da. Merkataritzaren eskualdekatzeak nazioarteko salkarien joan-etorrien hiru gunetan kontzentratzeko joera islatzen du: EEBBen eremua, Europako Batasunarena eta Japoniaren ingurua (ikus seigarren gaia). Merkataritza mugimenduen eremuak ezezik ekonomi eragin eremuak ere badira aipatu hirurak: inbertsioak ere lurralde joera berdina agertzen baitu eta hiru eremuetan moneta nagusi bat ezagutzen baitute (dolarra, marko/euroa, yena).

Eskualdekatzeak, beraz, ekonomiaren geografia berria lekarke eta nolabait mundu ekonomia bakarraren ustea uxatuko luke. Horrek ez du ukatzen mundu sistemaren erakuntza prozesuaren egitatea eta bideragarritasuna, alderantziz mundu ekonomia osatzeko bidean funtsezko tresna ere izatera hel daiteke eskualdekatzea. Baina, era berean fenomeno honek ukatu egiten du egungo errealitate ekonomikoa deskribatzeko mundu sistemaren osaketa definitiboa eta prozesu itxia dela.

Beraz, zer dela eta finkatu eta hedatu da horren tinko ekonomi globalizazioaren ideia egun? Globalizazio ekonomikoaren ideia ez legoke hain zabaldua baldin eta errealitatea deskribatzeko tresna teoriko hutsa balitz. Baina, bada zerbait gehiago: azkenaldian pentsamendu bakarra bihurtu den neoliberalismoaren ikur bihurtu da. Ekonomi politika kontsebadorearen apologetak dira globalizazioaren ideologia gehien barreiatu dutenak akademi esparruan zein hedabideetan ere. Izan ere, ekonomi globalizazioarekin, Estatuak ekonomi aldagia eta prozesuen gaineko kontrola galtzean, Estatuaren eskuharmena ekonomian bere funtsa galdu bide du. Aitzaki aparta, finantza desregulaketa, pribatizazioak, gastu sozialen murrizketa eta merkatuen irekitasuna, hots neoliberalismoaren ekonomi politikako neurri zorrotzak eta Estatuaren alboratzea akuilatzeko. Aipatu dugun legez,

Estatuaren eskuharmenaren ahultzea baino gehiago, bere funtzioen eraldaketa jazotzen ari da. Aldarrikatutako Estatuaren liberalizazioa hainbat arlotan hutsaren hurrengoa izan da, hala nola emigrazioarekiko muga hertsitasuna, enpresa pribatuari emandako laguntza publikoa eta sektore batzuetako babes politika (nekazaritza, ehungintza, jabego intelektuala, etab.).

Horregatik, globalizazioaren ideiaaren apologetak neoliberalismoaren aldeko eragile sutuenak dira. Honela, Iparreko gobernu gehienek 1980ko hamarkadatik politika neoliberalak aplikatzen hasi ziren, lehiakortasuna eta malgutasuna ekonomi globalean kapitala erakartzeko bide bakartzat harturik. Halaber, gobernu hauen indarra islatzen den nazioarteko erakundeetan, hala nola Nazioarteko Moneta Fondoan, Mundu Bankuan edo Merkataritzaren Mundu Erakundean, doktrina neoliberalaren hastapenen aplikazioa globalizazioaren ideiarekin nahastu da. Azkenik, Enpresa transnazionalak dira globalizazioa bultzatzen diharduten eragile ekonomiko nagusiak eta, halaber, ideia horrek ahalbidetzen duen ekonomi neurri multzoaren onuradun behinenak. Kapital transnazionalek, dena den, jatorri nazional argia dute eta horrekiko nolabaiteko atxikimendua mantentzen jarraitzen dute, beren gobernuen gaineko presio ahalmena zorrotza dute eta hala erabiltzen dute bere interesak asebite ditzaten nazioartean nola barnean. Nazioartean liberalismoaren errezeten bultzagileak izani, barnera begira interes babesleak maiz agertarazten dituzte ETNek eta sarritan kontraesan hori erakusten dute gobernuek beren aldarrikapenetan eta politiken aplikazioetan. Honek guztiak ere, ekonomiaren munduraketa prozesua balaztatu egiten du globalizazioa errealtate hurbila izateko tarte handia jorratu beharra dagoela frogatuz.

Finean, globalizazioarena amaitzeke dagoen prozesu bezala ulertu behar dugu, lehen gaian egin hausnarketaren ildotik. Bide horretan luze eta sakon bideratuko dira dinamikak harik eta prozesuak berak sortzen dituen kontraesanak eta desegonkortasun ekonomikoak zein sozialak leuntzen ez badira. Gaur egun, globalizazio neoliberalak disparekotasunak gehitu egin ditu hala herrien nola gizataldeen artean. Iparra eta Hegoaren arteko lubakia etengabe handituz doa, honi Europako Ekialdeko transizioaren giza eta ekonomi porrota erantsi behar zaio. Beraz, globalizaziorako egungo joera herrialde osoen alboraketaren eta Iparreko zein Hegoko herrietako giza sektore zabalen kanporaketaren gainean eraikitzen ari da. Gainera, aldiro-aldiro finantza zein beste aldagai makroekonomikoetan islatzen den desegonkortasun ekonomiko biziak errepikatzen dira. Esan gabe doa, ekonomi eta ingurugiro krisiaren irtenbide gabeziak sortzen duen ziurgabetasuna zalantza gehiago eransten dio

munduko ezenatokiari. Munduko ekonomiaren eraldaketa eta berregituraketa ezinbestekoa da baldin eta noizbait mundu ekonomia nagusituko bada.

Galderak:

- Zenbateraino esan dezakegu globalizazioa errealitate bat edo erabat gauzatutako prozesu bat dela? (globalizazioaren ideia erlatibizatzeke argudioak azaldu).
- Globalizazioak ideologia argirik al du ala kontraesanez osatutako egitasmotzat hartu beharko genuke?